

ORDENAGAILU-INPRIMAGAILUA. SARRERA

Azken hamarkadetan ordenagailuen erabilera ikaragarri igo da denon egunerokoan. Bai ikastolan, unibertsitateetan, lanean eta etxean bertan gauza guztietarako erabiltzen ditugu. Bestalde, azpimarratzekoa da egungo gizartean dena momentuan nahi dugula. Azkartasuna geroz eta gehiago baloratzen den parametro bat da, jendeak nahi duena momentuan bertan nahi du (janaria, internetetik eskatutako gauzak... dena).



Bi faktore horiek kontutan hartzen baditugu arazo batekin egiten dugu topo. Ordenagailutik zerbait inprimatu nahi dugunean, inprimagailu bat behar dugu, lanean egiteari utzi behar diogu, altxatu eta inprimatutako papera jasotzeko. Sarritan gainera inprimagailua ordenagailutik urrun aurkitzen da eta horrek denbora galtze bat suposatzen du ere.

Eta hori guztia aldatuko balitz? Galtzen dugun denbora guzti hori aurreztuko bagenu? Zergatik ez inprimagailua ordenagailuan bertan txertatu? Horixe da gure proiektuarekin proposatzen dugun gailua. Ordenagailua eta inprimagailua batera egongo balira, ikaragarritzko denbora aurrezte bat suposatuko luke, eta erabat praktikoa izango litzateke.



Esklusiboa, berritzailea, aurrerakorra... Gure gailuarekin etorkizunera eurrerapauso bat emateko aukera izango geuke, hegan egiteko aukera.

Gure proiektu honekin jendeak denbora aurreztuko luke, lana gutxituko litzaieke, eta gainera irudi prestigiotsu bat ere bermatuko genioke jendeari.